

8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan hainbat funtsezko baliabide behar ditugu, fisikoak, intelektualak eta giza baliabideak zein finantza baliabideak. Arrakasta izateko beste hainbat baliabide ukigarri eta ukiezinak ditugu, hala nola esperientzia, beharrezko kontaktuak, abileziak eta abar.

Baliabide fisikoei dagokionez, lanerako bulegoa, ordenagailuak eta telefonoak funtsezkoak izango dira. Intelektualei eta giza baliabideei dagokionez, sormena, informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak ditugu, antolaketarako abileziak, hitzarmenak egiteko eta enpresekin harreman onak egiteko gaitasunak. Horrez gain, finantza kontuko ezagunak ditugu. Azkenik, finantza baliabideei dagokionez, hasieran guk ipinitako kapitala izango dugu.